



Done Mikel

ermita

Aldaerak: San Miguel

Ahozkoa:



43°10'19"

2°33'15"

Berriz Irudian / A. Arbulu

Done Mikel goiangeruarekiko jaiera edo debozioa oso zaharra da gure artean. Arrunki santuak izaten dira hil ostean zerura joandakoak, baina Done Mikel goiangerua da, aingeruen artean goren dagoena eta Elizaren zaindaria da. Horregatik margo eta estatuetan ezpata eskuan ageri da. Horretaz gain Azken Epaiaketaren margoetan ageri da arimak pisatzen. Jai eguna irailaren 29an da. XVI. mendean egin zen Trentoko kontzilioak ekarri zuen santuen euskarazko izenak baztertzea eta erdarazkoak nagusitzea horregatik Bizkaian ohikoa izan da jatorrizko Mikel izenaren orde euskaraz ere gaztelaniazko Migel erabiltzea.

Zaldibarko parrokiaren ardurapekoa bada ere, Okangon dago goiangeruari dedikatutako ermita ederra. Luzanga da, neurri onekoa eta kanpai-horma ere badu, eraikina baino berriagoa. Elizpeak L forma hartzen du, alde bitan bakarrik dagoelako banatuta. Oso interesgarriak dira elizpeko teilatuari eusteko harrizko pilare klasikoak, zokaloaren gainean eutsitakoak. Ermiten artean, elementu arkitektonikorik zaharrenetarikoa kontserbatu dituen dugu hau. Izan ere, leiho konopiala dauka eta dobela politeko arku sarreran, eta, tarteka oso kalitate oneko harlanduaz burututa dago, bat etorriko zena aurreko elementuak egin zireneko garaiairekin, XVI. mende inguruan.